

“ITXASKARIA” LIRURUAREN AURKEZPENEAN

Bilbon, 1979, martxoak 16

Jaun-Andreak

Petronor enpresa 10 urteko mutiko izatera heldu omen zaigu. Bere haurtzaroa gainditu du, beraz. Gertakari hau nolabait ospatzeko, ez du maizenik egin ohi den bezalako bestarik antolatu: jan-edanak, hitz iheskorrak, txaloak, tabakoaren kea, eta kitto. Ez. Gure artean gutxitan egiten dena egin du: urte muga hau libru batekin ospatu, alegia. Eta ez nolana-hiko libruarekin. Mugarri antzo geldituko den libru batekin baizik.

“Itxaskaria” ez da libru arrunt horietako bat. Euskaldunak eta itsasoa da beronen muina. Sigfrido Koch jaunaren argazki miragarriek alde batetik, eta gure espezialistarik hoberenen —Caro Baroja, Barandiaran, Altuna, Pelay, Basterretxea, Oteiza, Busca Isusi— lanek bestetik, eraiki dute monumentu iraunkor hau. Lanok, gainera, erdaraz eta euskaraz daude.

Eta hori gutxi balitz, 500 ale Euskaltzaindiari hutsean ematen dizkio Petronor-ek.

Euskaltzaindiaren izenean “eskerrik asko” esatea bada-kit zerbait hits eta hotz esatea dela, baina esan beharrekoa, eta bihotz-bihotzez eta barren-barrendik esaten dudana.

Libruaren xehetasunetan ez naiz sartuko, zeren bertan parte hartu duten jaunak berehala mintzatuko baitira.

Euskaldunak eta itsasoa: gai benetan hunkigarria hau-
xe! Itsas hegian edo hegitik gertu xamar jaio garenontzat tira
berarizkoa du itsasoak, halako lilura ezin esanezko bat. Nire

jaio hauzoari Errenteria deritza, eta zerbait salatzen digu horrek: itsasotik hara zetozen untziek han zergaren bat pagatzen zutela. Nik arez eta gatzez betetako gabarrak ezagutu ditut itsasotik errekan gora etortzen. Ikusgarri liluragarria izaten zen hura guretzat.

Eta erreka izan ohi genuen geure jolastokirik atsegine-na. Arrantzuan egitea edo egiten zutenei ikusmiran egotea. Aingirak, karramarroak, kolajak, arrain gorriak... zer ez zen ur haietarik ateratzen! Inoiz bateltxo bat ere egin genuen, harro-harro errekan ibiltzeko, izenburu, bandera eta guzti: "El pirata negro".

Bai, erreka bazter haiek erakarpen indar berezia zuten guretzat.

Urtean behin edo birritan, eta beti egun jakinetan —Santiago eta San Inazio egunean— Txatxarramendi eta Laidara joaten ginen —edo eroaten ginduzten—. Hura besterik zen. Itsaso zabalaren zabala ikustea! Eta inoiz han untzi handixkaren bat begizatzea. Adibidez, "Nemrod" izena zuena. Hura zoramena guretzat!

Salbatore Mitxelena badu olerki bat: "Urruti mina". Bertan kantatzen du euskaldunak, itsasoari esker, hor barreanean tinkaturik daraman kezka eta jorana. Egintza orokor eta handietarako grina. Iparragirre-ren "Boga Boga" k ere ez ote digu hori bera gogoarazten?

Nolanahi den, jaunak, euskaldunek eta itsasoak elkarrekin duten zer-ikusia ikasteko, hor dugu Petronor-ek egin arazi duen liburu gotorra: "Itxaskaria".

Eskerrak berriz ere Petronor-i, eta bereziki Petronor-en Zuzendari den Fernandez Cuesta jaunari.